

# SANTA KILDARAKO ITZULERA

## HASIERAKO EGOERA

2015ean gaude. Erresuma Batuko Armada erretiratu da Santa Kildatik. Euren etxeak eraitsi dituzte, eta soil-soilik, badiaren aldeko lerroko lastozko etxe zaharrak geratzen dira. Etxe batzuek badute oraindik teilaturik, baina gehienak erortzeko zorian daude.

Kanadako aberats batek erosi egin du irla eta bertan proiektu berezia martxan jartzen ari da. Pertsona honek, orain 15 urte, *castaway* izeneko teleaioa ikusi zuen, non parte-hartzaileek Taransay irlan bizi behar zuten urtebetez. Dena den, aberats honen ideia bestelakoa da : ez da batere komunikaziorik izango irlakoen eta kanpokoen artean, eta 12 urte emango dituzte bertan. Ez dute inolako laguntzarik jasoko.

Kanadako babesleak frogatu nahi du gaurko munduan badagoela bizitzea tokitako leku babesgabeetan. Hamabi pertsona elkartu nahi du etxe bat eraikitzeko, elkarrekin bizi daitezen, eta ondorengoak izan ditzaten.

Kontua da nor aukeratu, eta zergatik ?

## Aukeratzea

Zeuen taldeetan proiekturako hamabi pertsona egoki aukeratu behar dituzue. Era guztietako trebetasun eta kualitateak dituzten pertsonak behar dituzue. Hautagaien zerrenda geroago emango dizuegu. Dena den, hona hemen kontuan izan beharreko hainbat gauza :

- pertsonaren ahalmena, trebezia, moldakorra izatea
- nola jar dezakete arriskuan proiektua hautagaiak ? zergatik ?
- lagungarriak izan al litezke hautagaiak lanez kanpoko bestelako eremuetan ?
- aukerarik izango al lukete zahar-zaharrek eta haurrek ?
- lan egiteaz gain, nola dibertituko dira eta nola moldatuko elkarrekin ?
- bikotekide bakar bat edo familia bateko kide bakar bat aukeratuz gero, zer-nolako erantzuna espero dezakegu?

## HAUTAGAIK

**Aonghas Bán MacMhathain (42 urte) ( gizonezkoa )** . Poeta da ; istorio laburrak idazten ditu. Arotza izandakoa da, eta altzarigintzan lan egindakoa.

**Catriona Nic a´ Bhriuthainn . (38) (emakumezkoa )** Kazetaria. Irratian eta Telebistan lan egiten du. Lehen, prentsan aritutakoa.

**Ceít-Anna NicDhúghaill . (45) (E)** Etxekoandrea. Ezkondu aurretik, dendaria.

**Seóras MacDhúghaill (50) (G)** . Dendaria. Ceit-en senarra. Denda txiki baten jabe, bakarrik egiten du lan. Lehen, emaztearekin, baina ez deritzo egoki emakume ezkonduak etxetik kanpo lan egiteari.

**Donnchadh MacSuain (39) (G)** . Garaje bateko langilea. Orain lau urte alargundu zen. Bi seme-alaba ditu : Marsaili, zortzi urteko neskatosa eta Nial, sei urteko mutikoa.

**Eachann MacAmhlaigh (24) (G)** . Udaltzaina Aberdeen-en. Basogintzan ikastaroa egina du unibertsitatean.

**Seónaid Mhoireach (23) (E)** . Eachann-en neska-laguna. Ile-apaintzailea. Hirian hazitakoa, eta Eachann-en alaba baten ama. Haurdun.

**Eilidh Chamshron (28) (E)** . Sutherland-go abeltzain batengandik banandua. Elikadura aditua. Haurdun.

**Iagan Boichanan (47) (G)** . Apaiza. DBHko zientzietako irakaskalea zen apaiztu aurretik.

**Maighread Ghrannnd (26) (E)** . Erietxeko erizaina ; ez ditu horretarako ikasketak egin, ordea.

**Máiri Ghreumach (43) (E)** . Dantzaria Eskoziako balletan eta DBHko irakaslea.

**Calum Ghreumach (24) (G)** . Máiri-ren semea. Autobus gidaria eta mekanikaria.

**Iseabail NicLeóid (23) (E)** . Calum-en neska-laguna. Lorezaina hiriko parkeetan. Barazkiak landatzen aritutakoa.

**Niall Greumach (21) (G)** . Máiri-ren semea. Unibertsitatean musika ikaslea.

**Murchadh MacIllFhinnein (64) (E)** . Eskoziako Eliza Libreko ministroa. Funtzionarioa izandakoa.

**Peigi NicIllFhinnein (33) (G)** : Murchadh-en emaztea. Urtearen hasieran erretiroa hartuta. Lehen Hezkuntzako irakaslea izandakoa.

**Seóras MacIllFhinnein (33) (G)** : Murchadh-en eta Peigi-ren semea. Lanerako ezindua gaztetako istripu baten ondorioz. Ibiltzeko gauza da, baina laguntza behar du.

**Seumas Stubhrat (36) (G)** : Sendagilea. Bere aisialdian itsasontziak egiten ditu eta eskusoinua jotzen du. Homosexuala da.

**Dómhnall Iain MacFhionghain (34) (G)** . Baserritarra, eta arrain-haztegian lanean hasia. Seaumas-en mutil-laguna.

**Sine Robasdan (22) (E)** . Konpainia bateko zuendariaren idazkaria. Ordenagailu-lana eta kontabilitatea.

**Alasdair MacMhaoilein (27) (G)** : Teknologian espezialdutako langilea. Sine-ren mutil-laguna.

**Úsidean Caimbeul (54) (G)** : azken 20 urteotan, alkoholismoak eragindako osasun arazo larria du. Bizimodua aldatzeko aukera izan nahi du.

**Agnes Dhómhnallach (52) (E)** . Uisdean-en ahizpa. Ospitale bateko sukaldariak 30 urtez. Arazoak edariarekin.

**Lachlann Dómhnallach (55)** . Agnes-en senarra. Su-hiltzailea eta boluntarioa. Arazoak edariarekin.

**Úna NicAonghais (57)** . Eskola bateko garbitzailea. Banandua. Seme-alaba helduak eta bilobak ditu.